



Marea beltza eta hegaztiak

Sedentarioak




Ubarroi mottoduna
Phalacrocorax aristoteli
Moko fina dute eta lumajea beltza. Itsaslabarren ertzetan jartzen dituzte habiak. Arrainak jaten dituzte.



Belatz handia
Falco peregrinus
Ez da itsastxoria, baina itsaslabarretan jartzen du maiz habia. Harraparia da, itsas txoriak jaten ditu, besteak beste.

Ekaitz-txoria
Hydrobates pelagicus

Lumaje iluna du, eta txikia da oso, Europako itsastxori txikiena da. Batez beste ez da 15 cm baino handiagoa. Mikroplanctona jaten du.



Aranzadi Zientzia Elkartek eginiko ikerketen arabera, dagoeneko 32 hegazti espezie kaltetu ditu marea beltzak euskal kostan. Irudiotan agertzen direnak kaltetuenak dira, edo eta datozen hilabeteetan kalte handia jasan dezaketenak.

**Iparraldetik etorriak**

Iparraldetik, Britainiako uharteetatik, negua pasatzera etorritakoak dira orain euskal kostan agertzen diren zenbait itsastxori.

Hegoaldetik etorriko dena

Udaberrian helduko da ekaitz-txoria euskal kostara. Gaztelugatzen kolonia handia egoten da.

Migratzaileak



Martina
Uria aalge
Espezierik kaltetuenak da. Moko luzea du, eta urtaroei kolorez aldatzen da. Arrainak, muskuiluak eta algak jaten ditu. Itsaslabarretan ugaltzen da.



Lanperna-musua
Fratercula arctica
Moko koloretsua du, batez ere udan, eta handia. Muskuiluak, arrainak eta itsasoko landareak jaten ditu.



Pottorroa
Alca torda
Igerilari aparta da. Moko trinkoa du, eta zuri-beltza da. Itsaslabarretan jartzen du habia. Arrainak eta muskuiluak jaten ditu.



Antxeta
Rissa tridactyla
Gris-txuriak dira, eta hegaleen punta, berriz, maiz beltza izaten da. Batez ere itsasoa ibiltzen dira.

J. APEZTEGIA

Likistuta, kutsatuta, hilda

HEGAZTI KALTETUAK. Milaka hegazti zikindu, pozoitu eta ito ditu 'Prestige'-ren erregaiak euskal kostan. Galbidean zeuden zenbait espezie are arrisku handiagoan daude orain.



JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

HONDAKIN PENAGARRIA. Asteotan maiz errepikatu den irudia: garbitzaileak, hondartzetan itsastxori kutsatuak jasotzen.



JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

BIZI LABURRA. Fuel-olioz zikindutako hegazti gehienak hil egin dira, errehabilitazio zentroetan oso gutxi salbatu dituzte.

Arantxa Iraola | DONOSTIA

Prestige-k isuritako fuel-olio likitsaren ondorioz milaka hegazti, hil dira hilabeteotan euskal kostan, itsastxoriak gehienak. Datuak ikaragarriak dira. Lapurdiko itsasertzean hondamendiak kutsatutako 1.800 hegazti jaso dituzte hilabeteotan; Gipuzkoan 1.473, eta Bizkaian, dagoeneko 1.500 baino gehiago jaso dituztela esan zioten atzo EGUNKARIARI Gorlizko Animalien Errekuperazio Zentroan.

Hegazti horien alde deus gutxi egin ahal izan da, gehienak hilik agertu dira. Gorlizko Errekuperazio Zentroan, esaterako, 259 bakarrik jaso dituzte bizirik. Gipuzkoan, Arrano-Etxean, 274. «Eta horietako asko hil egin dira», azaldu dio EGUNKARIARI zentroko zuzendariak, Iñaki Intxaustik. Nahigabetuta. «Izan ere, bizirik iritsi direnak ere oso-oso gaizki iritsi dira, sufrimendutan itota, ia-ia hilik. Zer da bizirik egotea? Soilik bihotzak taupa egitea?».

Orain aste batzuk iristen ziren hegaztiak egoera txarragoan zetoze dio. «Sistema immunologikoa oso ahulduta izaten zuten haiek. Orain pixka bat egoera hobean iristen ari dira, eta hegazti gehiago salbatzea lortzen ari gara». Gutxi, hala ere. Asko kutsatuta iristen dira, beste asko, hegoak erregaiz estalita dituztenez, hipotermiak jota, hotzak.

Espezierik kaltetuenak, hainbat hegazti migratzaile

Jon Etxezarreta Aranzadi Zientzia Elkarteko ornitologoa da. «Euskal kostan, denera, 32 espezie inguru kaltetu ditu marea», azaldu du. Kaltetuenak zerrendatzeko eskatu eta lau espezie aipatu ditu: «Martinak, lanperna-musuak, pottorroak eta antxeta hankabeltzak». Itsastxoriak dira guztiak, eta, migratzaileak, iparraldetik etorriak.

«Britainiar uharteetatik etortzen dira kasurik gehienetan. Jaso ditugun hegazti askok, esaterako, Erresuma Batuko eraztuna dute. Uda Bizkaiko Golkoan pasatzera etortzen dira», dio ornitologoa. Hegazti espezie horien artean kaltetuenak, dudarik gabe, martina izan dela dio. «Jaso diren guztien artean erdiak-edo izango ziren martinak».

Aurki, —«martxo aldera»— berriro ere iparraldera joango dira hegazti horiek. Hegazti kolonia bakoitzak bere kabuz erabakiko du noiz hasi bidea. «Oso bitxia izaten da hori. Izan ere, hemen daude, baina, hala ere, sentitu egiten dute noiz dagoen elurrez garbi beraien habialekua, eta orduan hasten dute bidea, ez lehenago. Ez dakigu nola egiten duten hori».